

## GARIZUMAKO II. IGANDEA (A)

### Otoitza

Jainko Aita guztiz santua,  
zeure Seme maiteari entzuteko esaten diguzu;  
emaiozu gure espirituari zeure hitzaren janaria,  
gure sinesmen begiak argiturik,  
pozez ikus dezagun zure aintza.  
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Gn 12, 1-4a

*Jainkoaren herriaren aita Abrahamen deia.*

Genesis liburutik

Egun haietan, Jaunak honela esan zion Abrani: «Zoaz zure lurraldetik, zure aberritik eta zure aitaren etxetik, Nik erakutsiko dizudan lurraldera. Herri haundi egingo zaitut, eta izen handia emango dizut, eta zure izena bedeinkapen izen gertatuko da.

Bedeinkatuko ditut, zu bedeinkatzen zaituztenak, eta madarikatuko, zu madarikatzen zaituztenak; zuregan bedeinkatuak izango dira lurreko enda guztiak».

Hala joan zen Abran, Jaunak esan bezala.

ERANTZUN SALMOA: Sal 32, 4-5. 18-19. 20 eta 22

**R/. Betor gugana, Jauna, zure maitasuna,  
Zugan baitugu gure uste ona.**

Zuzena baita Jaunaren hitza,  
leiala Hark egin duen guztia.  
Zuzen eta bidezko dena du maite,  
Haren graziaz lurra dago bete. R/.

Hara, Jaunaren begiak beldur diotenengana,  
Haren maitasuna itxaroten dutenengana;  
haiek baititu heriotzatik aterako,  
eta gosetean aseko. R/.

Gure bihotza Jaunaren zain dugu,  
lagun eta babes Bera baitugu.  
Betor gugana, Jauna, zure maitasuna,  
Zugan baitugu gure uste ona. R/.

II. IRAKURGAIA: 2 Tm 1, 8b-10

*Jaungoikoak dei egiten digu,  
eta*

## San Paulo Apostoluak Timoteori

Anaia maite: Eraman itzazu nekeak nirekin batean berri onaren alde, Jaungoikoaren indarrez. Berak salbatu gaitu, eta dei egin digu bizi santura; ez gure egiteengatik, baizik eta bere erabakiarengatik, eta gizaldi guztiak baino lehen Jesu Kristorengan eman zaigun graziarengatik. Grazia hau agertua izan da orain, Jesu Kristo gure salbatzailea azaldu denean; Honek hondatu du heriotza, eta argitara atera bizi ustelezina, berri onaren bidez.

EBANJELIOA: Mt 17, 1-9

**Ebanjelio aurreko txatala:** Ik. Lk 9, 35

V/. Hodei distiratsutik Aitaren ahotsa entzun zen:

«Hau da nire Semea, nire Aukeratua.

Entzuiozue».

*Aurpegia eguzkia bezain dizdizari zeukan.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik

Aldi hartan, hartu zituen Jesusek Berekin Pedro, Santiago eta honen anaia Joan, eta mendi goi batera igo zen. Hiruen aurrean antzaldatu egin zen; aurpegia eguzkia bezain dizdizari zeukan, eta soinekoak argia bezain zuri. Eta Moises eta Elias agertu zitzaizkien, Jesusekin hizketan.

Pedro mintzatu zen orduan, eta honela esan zion Jesusi: «Jauna, bai ederki gaudela hemen! Nahi baduzu, egingo ditut hiru txabola: bata Zuretzat, bestea Moisesentzat, eta bestea Eliasantzat».

Hizketan ari zela, hodei argi batek estali zituen, eta hodeitik ahots bat entzun zen: «Hau da nire Semea, nire Maitea; Honengan dut neure atsegina. Entzuiozue». Hori entzutean, ahuspez lurrera erori ziren ikasleak, beldurraren beldurrez.

Hurbildu zitzaien Jesus, ukitu zituen eta esan zien: «Jaiki zaitezte; ez izan beldurrik». Begiak jasorik, Jesus bera besterik ez zuten ikusi.

Menditik behera jaisterakoan, Jesusek honela agindu zien: «Ez esan inori ikusi duzuen hau, harik eta Gizonaren Semea hilen artetik piztu arte».

### Oparigaien gainekoa

Eskaintza honek, Jauna, gure bekatuetatik garbi gaitzala,

eta zure zerbitzarien gorputz-arimak santu egin,

Pazko jaiak ospatzeko gai izan gaitezen.

Jesu Kristo.

### Jaunartze ondorengoa

Eukaristia honetan zure Semearen gorputza hartu dugunok

eskerrak ematen dizkizugu, Jauna,

lur honetan gaudela

zeruko ondasunen jabe egin gaituzulako.

Jesu Kristo.